



Pil-pilean

TEKNIKAKO

Soraluzeko hilabetekaria
2022ko azaroa - 392. alea



**JANTZI
TXAPA!**

MERLIN PROIEKTUA
**PRESEN AUZIA
MAHAIGAINEAN**



PIL-PILEAN 392

2022ko azaroa

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|---|
| 4 | Elkarrizketa Elena Iraolagoitia | IRITZIA |
| 6 | Begira Blues Hotsak jaialdia | 3 Neuretik Xabier Iñurrieta <i>Otxabo?</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | <i>Gizon gaiztoa zan. Plazentziatarra</i> |
| 14 | Argazki bidez Gaztañerre azoka | 18 Gutunak Kanpaiak gauez |
| 16 | Ugaraxo Eskolako berriak | kentzearen aldeko herritarrek |
| 20 | Erreportajea Presen auzia | <i>Kanpaien zarata gauean</i> |
| 28 | Kirola Pilota eta errugbia | Iban Zaroberen gurasoak <i>1972ko</i> |
| 29 | Kultura Musikarien elkarteak | <i>kintoak eta adimen-desgaitasuna</i> |
| 30 | Nondik nora Jesus Echevarria | 18 Komiki tira |
| 32 | Gure artistak Andoni Rico | 19 Hausnarketa Eroski |
| 34 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, | supermerkatua |
| | oroitzak, iragarki laburrak... | 19 Puntua Regina Maiztegi <i>Mendiak</i> |
| | | <i>babestu, zertarako?</i> |



**Pil-pilean herri
komunikabidea**

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen
Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea

Miren Gallastegi

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi

Inprimategia:

Gertu Koop.

Banaketa:

Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

"Otxabo? Gizon gaiztoa zan. Plazentziatarra"



XABIER IÑURRIETA

Aurten dira 100 urte Francisco Apalategi azkenengo gerra karlistan ibilitakoen testigantzak jasotzen hasi zela. Bost koaderno bete zituen. Diputazioko artxibategira pasatu ziren eta Auspoa bilduman 2005. urtean atera zen *Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak* tituluarekin. Hainbat testigantzatan agertzen da "Otxabo" gure herrikidea.

Ezaguna egin zen karlista bezala baina gerra hasi zenean liberalekin zegoen. Zergatik aldaketa hau? Ideologia kontua? Bere kide Laureanok argitzen digu: "Ni Otxaboren partidari ibili nintzen. Otxabo mikeleteetan sarjentu zen, baina konpainiako diruak jokoan galdu zituen eta karlistetara pasatu zen. Kapitana egin zuten." Garbi dago ez zela pertsona arrunta, edozein egoeratan nabarmentzen den horietakoa baizik. Hainbat pasartek adierazten digute berrogei lagunekoko gerrilla talde baten buru izan zela Otxabo eta Donostia inguruan ibili zela gehienbat. Akzio konkrituak aipatzen dira Orion eta Hernanin. Ahozko adierazpenetatik kanpo, idatzizkoak ere badira. 1874. urteko abuztuan Serafin, Pío Barojaren aitak, bertso papera argitaratu zuen "Karlistaren Panparroikeria" izenburupean, karlistak barregarri uzteko asmoz. Hamar bertso dira eta laugarrenean Otxabo aipatzen du Gipuzkoako karlisten buruzagi artean. Joseba Tapiaren "Eta tira eta tunba" diskoan dago. Hurrengo urtean, apirilaren 28an, "Diario de San Sebastian"en Hernaniko korrespondentsalaren kronika detallista batek zioen: "Beso-euskariarekin, argalago eta zurbilago, bizarra apainduta, inoiz baino harroago eta basatiago berragertu da Otxabo Hernani erasotzera". Lehenengo agindua izan omen zen: "Zahar edo gazte, hil egin behar da hernaniarra". Baina ez zuten lortu tren geltokitik aurrera egiterik eta hor gelditu zen eraso.

"Otxabo" izengoitiz oso ezaguna izan zen. Izen-abizenak, ordea, ez ditu inork aipatzen. Gaur egun zeharo ahaztua dagoen arren, eta idatzitxo honetan besterik ez bada ere, gorenean eutsi nahi dugu gure heroi/deabru/toreroa, eta zer hobe XIX. mendeko historialari ospetsuenari, Antonio Pirala Criadori azkenengo hitza uztea baino: Iturriaga (El Ochavo).

**40 LAGUNEKO GERRILA
TALDE BATEN BURUA
IZAN ZEN OTXABO ETA
DONOSTIA INGURUAN
IBILI ZEN GEHIENBAT**

“Nahi gabeko bakardadea gai oso tabua eta ikusezina da”

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA ZANGITU

Elena Iraolagoitia (Eibar, 1969) Adindu gerontologia zerbitzuko aditua da. Nahi gabeko bakardadeari buruzko tailerra eman du Itxaropena Erretiratuen Elkartearen. Uste eta aitortu baino jende gehiagok pairatzen du nahi gabeko bakardadea eta egoera horri aurre egiteko beharra azpimarratu zuen, besteak beste.

Gaur egun, nahi gabeko bakardadea askoren errealitate mingarria da, ezta?

EAEko 55 urtetik gorako bizilagunen bakardade egoeraren gaineko azken azterketako datuen arabera, %7,5ak bakardade publikoko egoera bizi du. Bakardade publikoa da norberak aitortzen duenean beti edo ia beti bakarrik sentitzen dela. Eta %24,7a, berriz, bakardade pribatuko egoeran bizi da. Bakardade pribatua da, zenbait galdera eginez, pertsona batek nahi gabeko bakardade egoera bizi duela detektatzen denean. Beraz bai, datuak altuak dira, 55 urtetik gorakoen artean, laurden bat baino gehiago bakarrik sentitzen da.

Zergatik guztiek ez dute aitortzen bakardade egoera hori?

Nahi gabeko bakardadea gai oso tabua da, horregatik diogu errealitate ikusezina dela.

Gai oso tabua da?

Askorentzat estigma bat. Askok uste dute bakarrik sentitzea euren errua dela, porrot pertsonal modura sentitzen dute eta lotsa sentitzen dute hori adierazteko. Horregatik dira horren garrantzitsuak Itxaropenakoa moduko sensibilizazio tailerrak. Gaiari buruz ez bada hitz egiten tabua izaten segituko du, eta, aldiz, nahi gabeko bakardadea oso sentimendu naturala da.

Naturala da?

Bai, erabat. Guztiok sentitu gara, sentitzen gara edo sentituko gara bakarrik noizbait. Inor ez dago horretaz salbu. Adinarekin handitu egiten da, baina lehenago ere ematen da bakardadea. Nahi gabeko bakardadea ez da porrot pertsonala, porrot soziala da. Begira zelako gizartea sortu dugun, zelakoak diren gu bizi garen komunitatearen ezaugarriak.

Baina era berean, ikusezina da...

Bai, ez dauka sintomarik. Pertsona bat ikustearekin ezin da jakin bakarrik sentitzen den ala ez. Baina oso ondorio kaltegarriak ditu. Pertsonaren ongizatean eragiten du, sistema immunologikoan, pertsonaren autonomian, okerrago egiten da lo, zerbitzu medikuak gehiago erabiltzen dira... kostu sozial eta ekonomiko handiak ditu.

Zerk eragiten du nahi gabeko bakardadea?

Batetik, kanpo faktoreak daude: osasun, mugikortasun, irisgarritasun... arazoak. Ez da gauza bera herri erdian bizitzea edo baserrian, etxean igogailua izatea edo ez izatea... Bestetik, barne faktoreak daude: harremanak ulertzeko modua, gure jarrera, izaera... Nahi gabeko bakardadearen sentimendua sortzen da pertsona bat ez dagoenean gustura dituen harremanekin, kantitatez gutxiegi direla uste duelako zein kalitate baxukoak direla sentitzen duelako.

Ez da gauza bera bakarrik egotea eta bakarrik sentitzea.

Bakarrik egotea ez da arazo, atsegina ere bada askotan. Baina bakarrik sentitzea desatsegina da eta asko horrela sentitzen dira, nahiz eta pertsonen inguratuta egon.

Baina posible da bakardadeari aurre egitea...

Noski. Lehen pausoa da gizartea sensibilizatzea egoera horretaz, tabua izateari lagatzeko. Bigarren pausoa da prebentzioa; norbere arrisku faktoreak ezagututa egin beharrekoa, eta hirugarren pausoa da komunitate bezala egin daitezkeen ekintza komunitarioak.

Zer dago, adibidez, norberaren esku?

Jarrera aktiboa izatea, harremanak zaintzea, edo, adibidez, norbaitek deitzeko zain egon barik, norberak ematea pauso hori. Pertsona abegikorrek izan behar gara, laguntza behar duenari laguntzeko prest egon. Bestalde, adinean aurrera egin ahala, oso garrantzitsua da harreman berriak egiteko jarrera aktiboa izatea, zeren harreman asko galdu egiten dira adinarekin. Bakardadeari aurre egiteko ahalegina egin behar da, etxean geratu barik.



Zelako ondo pasatu dugun

ARGAZKIA: JOSUNE ARAMENDI.

TESTUA: J.F.A.

Ostiralean, Itziar Yagüe kantariak eta Paul San Martin piano-jotzaileak Bessie Smith artista afroamerikarraren errepertorioa eta bizipenak ekarri zizkiguten. Kantariak garbi laga nahi izan zuen Blues kantari modura lehen hastapenak emakumeen eskutik sortu zirela.

Larunbatean, Niko Etxart & Hapa Haparen txanda izan zen. Niko kantari trebea eta artista zela bagenekien baina ekarri zuen taldea ez zen nolanahikoa. Goi mailakoak izanda, zergatik ez dute Niko Etxart & Hapa Hapa programatzen inongo blues jaialdi handitan?

Igandean, musika eskolako ikasleek ilusioz jo zuten eguerdian eta iluntzeko dantzarako hitzordua Carlton Jumel 62 urteko newyorktarraren eskutik etorri zen. Laster bereganatu zuen jendea, uneoro umoretsu eta pozik. Zelako ondo pasatu dugun!







Herritarrek Euskaraldia hasi aurreko prestakuntza saioan.



Arigunea osatu dute Somaben.

Ekiteko garaia da

496 plazentziatarrek eta 55 entitatek eman dute izena Euskaraldian eta abenduaren 2ra bitartean, hizkuntza ohitura berriak ezartzeko ariketa egingo dute.

Abian da Euskaraldia eta Euskal Herri osoan bezala, Soraluzen ere ehunka herritar dira hizkuntza ariketa erraldoian izena eman dutenak.

Ekimenaren helburu nagusia: herritarren artean hizkuntzaren arau sozial berriak ezartzea, hala nola: lehen hitza euskaraz esatea, euskaldunek euskaldunen artean euskaraz egitea eta elkarriketa elebidunak izatea (erdaraz erantzun arren, euskarari eustea). Horiek dira Euskaraldiak herritarren artean indartu nahi dituen ohiturak.

Parte hartzea "sekulakoa"

Euskaraldiaren Batzordeak eman dituen izen-emate

datuen arabera (behin betikoak), Soraluzen, guztira, 496 herritarrek eman dute izena (505 2020an), horietatik %58ak Ahobizi rola hautatu du eta %42ak Belarriprest (bigarren ediziotik 8 puntu gora). Generoari dagokionez, berriz, nabarmentzekoa da parte hartzaileen gehiengo nabarmena %63 emakumezkoak direla. Adinari dagokionez, parte hartzaile kopururik handiena 36-55 urte bitarteko pertsonen osatzen dute, %65, eta txikiena, berriz, 65 urtetik gorakoek, %12. Azpimarragarria da 16-36 urte bitartekoen artean parte hartu dezaketen guztien artetik herenak izena eman duela.

Euskaraldiaren Batzordeak adierazi duenez, "hirugarren edizio honetan ere parte hartzeak sekulakoa izaten dihardu eta horrek erakusten du herritarren artean oso zabaldua dagoela euskarari espazio gehiago emateko grina eta ardura".

Topaketa abenduaren 3an

Antolatzaileek behin eta berriz azpimarratu dute Euskaraldia ez dela "euskararen aldeko kanpaina", baizik eta "hiztun modura ahaldundu eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa praktikoa". Hala, ariketa hasi aurretik prestakuntza saioak antolatu dituzten moduan, abenduaren 3an, Euskaraldiaren biharamunean, Belarriprest eta Ahobizien topaketa egingo dute hizkuntza bizipenak eta gogoetak elkarbanatzeko.

**"PARTE HARTZEAK
SEKULAKOA IZATEN
DIHARDU ETA HORREK
ERAKUSTEN DU GRINA
ETA ARDURA"**

Belarriprestak eta Ahobiziak ekinean



ANA LODEIRO BELARRIPREST

“Somaben langile guztiak euskaldunak dira eta euskaraz bizi dira. Nik ia dena ulertzen dut eta ikasten jarraitu nahi dut”




BEÑE DE PEDRO BELARRIPREST

“Bezera asko ditut euskaraz berba egiten dutenak eta gure artean euskaraz gehiago egitea nahi dut. Niretzako ere inportantea da”



BITTORI RASCON BELARRIPREST

“Nik nahi dut niri euskaraz berba egin diezadatela, ikasten joan nadin. Nire helburua da hizkuntzaren zirkulua handitzea”



JON CABALLERO AHOBIZI

“Unibertsitateko ikaskideen artean euskaraz egiten dugu eta herriko lagun artean ere ohitura berreskuratzea nahi dut”



SILVIA LOSCOS AHOBIZI

“Gustatuko litzaidake Galdakaon erdaraz ezagutu ditudan lagunekin ere elkarriketak euskaraz mantentzea”



XABIER ALBERDI AHOBIZI

“Nire erronka izango da euskarari eustea euskaraz dakitenek erdaraz egiten didatenean, orain arte kosta egin zait eta”

Ahobizi eta Belarriprest topaketa

**Zein esperientzia
bizi izan duzu
Euskaraldian?**

**Zer lortu duzu?
Zer pentsarazi
dizu?**



**Abenduak 3,
zapatua
11:00 – 12:30
Tolarekuan
(kiroldegian)**



Iker Aldazabal, Miguel de los Toyos, Patricia Borinaga eta Unai Larreategi aurkezpenean.

Hiru obra handi egiteko laguntza

Soraluzek 5,8 milioi euro jasoko ditu Eusko Jaurlaritzarengandik Ezozibiderako, SAPArako eta Kalebarrengo bulegoarendako

Soraluzek 5,84 milioi euro jasoko ditu Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saitetik, herrian hiru jarduera handi egiteko.

Batetik, Ezozibidea auzoa zaharberritzeko. Kasu horretan,

bertako etxebizitzak energetikoki eraginkorrak izateko eta etxebizitzetarako irisgarritasuna bermatzeko jarduerak egingo dituzte. Halaber, auzoa bera irisgarri egiteko ere egingo dituzte

ekimenak, espaloiak zaharberritu, besteak beste.

Ildo beretik, Kalebarren 8an egokitzen ari diren bulegoan aholkularitza eskuratu ahal izango dute Ezozibideko auzotarrek. Bertan kontsultatu ahal izango dituzte obrak egiteko eskuragarri dauden laguntzak, adibidez. Halaber, bulego berean, herriko enplegu eta gizarteratzeko zentro berria kokatuko da, bazterkeria arriskuan dauden pertsonen arrera emateko

'Kanoiak'

Azkenik, SAPAko lehen eraikina birgaitzeko ere bideratuko dute Jaurlaritzak emango duen laguntzaren zati bat. *Kanoiak* izena ipini diote esparru hari eta bertan herritarrek erabiltzeko eremu libre, estali eta balioaniztuna sortu nahi dute.

Hori guztiori azaroaren 7an aurkeztu zuten, Iker Aldazabal alkateak, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuorde Miguel de los Toyosek, Patricia Borinaga ordezkari sozialistak eta Unai Larreategi ordezkari bilkideak.

Muskiritzu eremu degradatua berreskuratzeko 2.250 zuhaitz autoktono

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Departamentuak eta Soraluzeko Udalak Muskiritzuko eremu degradatua berreskuratzeko hitzarmena sinatu dute azaroan. Horren bitartez, 2.250 zuhaitz autoktono landatuko dituzte, Muskiritzuko hego magalean. Horretarako, Foru Aldundiak 33.800 euro

bideratuko ditu. Hitzarmena sinatzera, Soraluzera bertaratu ziren Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatua eta Monika Pedreira Ingurumen zuzendaria.

Babes funtzioa handitu

Bi erakundeen arteko hitzarmen horrekin hainbat helburu bete nahi dituzte:

batetik, baso autoktonoa bultzatzea, horri lotutako florarekin eta faunarekin batera, hortik, 2.250 zuhaitz autoktono landatzeko asmoa. Bestetik, lurzorua babes funtzioa handitu nahi dute, kalitatezko eta denboran irauteko moduko landare estalkia jarrita. Azkenik, klima aldaketaren aurka borrokatzea, hala eragina arintzeari nola klima aldaketaren eraginera egokitzeko gaitasuna hobetzeari dagokienez.

Zabaldute Eroski City

Eguazten goizean zabaldute zuten Eroski supermerkatua Estaziño kalean eta lehen egunotan herritar ugari pasa da bertatik

Jakin-mina, saltokiak egindako eskaintza bereziak, opariak, erosketak... bata edo bestea zela, eguaztenean, ateak zabaldute eta berehala herritar ugari egin zuten Eroski supermerkatuak joan-etorria. Bertako langileek ere halaxe esan zuten, bazirudiela herritar asko zain zegoela Eroskik ateak zabaltzeko, bisitari kopuru handia ikusita.

13 langile

Behin zabaldute, herriko supermerkatu berria



Jendea Eroskin.

astelehenetik zapatura, 09:00etatik 21:00ak arte izango da zabalik. 350 metro karratu pasa ditu eta desgaitasuna duten 13 langile, Gureak Taldekoak. Saltokiko eskaintzari dagokionez, labea, prestatuko janaria eta enbasatutakoak ditu: haragia, arraina eta urdaitegia.

"Aukerak biderkatu"

Gureak Taldeak zein Eroskik, biek ala biek nabarmendu dute bi enpresen arteko lankidetzak hitzarmen hori. "Gureak-ek Eroskiren esku jartzen du desgaitasuna duten pertsonen laneratzearen esparruan duen esperientzia, Eroskik bere supermerkatu eredua jartzen du eta, bien indarrak batuz, desgaitasuna duten pertsonentzat sortutako aukerak biderkatzea lortzen dugu".

Jakinarazteko, bertatik bertara

Batzoki

eguneko menua
antzerkizkoak
kanta eta musika

egunetakoak eta
herrikoak
entzango berriak

famila eta
lagun arteko
baserak

Donostia: 943 75 20 35

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zuri-gentako hortz idetza,
puntu-puntu teknologian lan
egiten dugu. Cast-Cam sistema
bertakoa erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
50100 ELIZPE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.klinika@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

IZAGAURRE
Igeletza

Erakitin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeletza

50 urteko esperientzia • 610 638 913

Kontulan

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

www.kontulan.com

MENDIZABAL
okindegia

Ogi • Prentsa • Gosariak

Astelehenetik
ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta
igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99

Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgesak,
ogitariekak,
nabakak,
pizak,
gosiak...

Erakargarriak egiten dira
Tel. 943 75 17 88

Bidelagun euskaltzetasunean



aras




laibi
ELECTRICIDAD

Hondakinak oker sailkatuta

Edukiontzietan, konpost guneetan zein zakarrontzietan hondakinen sailkapen okerra egiten da sarriegi

Hondakinak Prebenitzeko Astearen baitan, gai horrekin lotutako hainbat ekimen egin dira herrian zein Debabarrenean.

Besteak beste, eguaztenean, Soraluzen izan ziren Mankomunitateko Ingurumen saileko arduradunak eta adituak, bi ariketa egiten. Batetik, Erregetzeko errefuserako edukiontzi bat irauli zuten Plaza Zaharrean, soraluzetarrok barruan zer sartzen dugun ikusteko eta erakusteko. Labur esanda, hondakin organikoa



Konpost gunea zaborrekin.

zuen batik bat edukiontzi grisak, plastiko asko eta oinetako pare bi ere bai. Bestela esanda, errefusera bota behar ez diren hondakinak ziren gehienak.

Konpost guneak zakarrontzi

Bestetik, hondakinen sailkapen okerrak ingurumenari egiten dion kaltea nabarmentzeaz aparte, horrek dakarren kostu ekonomikoa ere mahai-gaineratu zuten. Kasu horretan, hondakinak egoki sailkatuz gero, Soraluzek 73.225 euro aurreztuko lituzkeela jakinarazi zuten Mankomunitateko adituek.

Azkenik, Udalak salatu du herrian dauden hiru konpost guneetan zabor ugari topatu dela, bereziki Etxaburuetakoko gunean txakurren kaka-poltsak botatzen direla ikusi da. Herritarrek hartu duten ohitura gaitzetsi du Soraluzeko Udalak.

Hortz klinika
Errabai 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.591

Katia Gustin
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

30 urte baino gehiagoko esperientzia odontologia, protesiak, edukiontzia, odontopediatria, ingurmenak, estetikak... Zerbiztu radiologiko onakorra (3D): enkanterri, orfito eta beste.

KLB6
Kalebarran 6
943 57 71 28
kalebarran6.com

BSB Pepe Jarama VERO MODA

SOLID BUNICH

new balance

FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Etxeko friolak
Souffles
Tel.: 943 75 10 02

MABEL
ILU-PAINDECTIA

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma

Errabai 1
Tel.: 943 75 14 89

MGS Seguros

Veronica Galaraga
Gertukoak eta seguruak

Asteleheneretik ostialara: 10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30 Santa Ana 13
645 744 055

Almar
Bosapaindegia
Estetika
Solariuma

Gastoluz 6, beheko
Tel.: 943 75 13 13 - 682 51 34 04

Carpinteria MANU Aroztegia

Atak
Bantak
Partak
Sukaldeak
Tartak

Mangel Cifuentes
Estazioa 8, barrera - Mug. 635 05 81 25

OTELA HARTZEA

- Enkarguak hartzen ditugu
- Gertuko garaiak
- Etxeko iripaki, bistak, salbata eta mingaina

Etxeberrieta 5
Telefonoa: 943 75 23 75



A. Gomez (Pil-pilean), A. Ibarzabal (Bizikale), I. Aldazabal (alkatea) eta M. Dominguez (Triskel).

Komertzio txikiaren alde

Gabonetan azoka, argiak eta umeendako atrakzioak ekarriko ditu Bizikale Merkatarik Elkartek eta otsailean OKM Gida berritua argitaratuko dute paperean eta online.

Datozen asteetan, Bizikale merkatarien elkartek hainbat ekimen ipiniko ditu martxan herritarren artean herriko komertzio txikiaren eskaintzak ezagutarazi eta bezeroak erakartzeko. Hala, abenduaren 16an, barikua, Gabonetako azoka izango da Bizikale Merkatarik Elkartearen eskutik. 10:00etan hasi eta 20:00ak arte izango da erosketak egiteko aukera, Plaza Zaharreko karpan.

Aurtengo Gabonetako azokan parte hartuko dute Triskelek, Belarrak saltokiak, KLB6-k, Mendizabal okindegiak, Criadok, Lilurak eta Iratxo goxo-dendak.

Gainera, herritarrendako pizgarri modura, 10:00etatik

18:00etara azokan erosten dutenen artean txartelak banatuko dituzte bonuen zozketan parte hartzeko. Ondoren, 18:00etan, bonuak zozkatuko dituzte, txokolatadaz lagunduta.

Gabonetako argiak

Zozketaren ondoren, berriz, aurtengo Gabonetako argiak pizteko ekitaldia egingo dute. Aurtun, ohikoa baino beranduago piztuko ditu Bizikalek Gabonetako argiak, eta, ordutegi murriztua izango dute: 18:00etatik 22:00etara astegunetan, eta, asteburuan, berriz, 18:00etatik 02:00ak arte (ostalarien ordutegia aintzat hartuta). Horrela egitea erabaki dute, ez bakarrik energia garesti

dagoelako, baizik eta ingurumena zaintzearen.

Bestalde, azken urteotan moduan, umeendako atrakzioen bat ekarriko dute eta martxan izango da abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra bitartean. Sarrerak Bizikaleko bazkideen establezimenduetan eskuratu ahal izango dituzte herritarrek.

Komertzioen gida berritua

Bestalde, 2023an, Bizikalek, Pil-pileanek eta Soraluzeko Udalak elkarlanean, herriko komertzioen gida berritu eta argitaratuko dute: Soraluzeko OKM Gida. Gidak herriko komertzioen, ostalarien, enpresen eta elkarleen gaineko informazio berritua jasoko du, bai paperean eta bai online (Plaentxia.eus-en).

Komertzioen eta ostalarien kasuan, zerbitzuen, produktuen eta eskaintzen gaineko informazioa jasoko du. Informazio hori biltzen eta komertzial lanetan Ander Gomez soraluzetarrak jardungo du. Asmoa da OKM gidaren papereko edizioa otsailean kaleratzea.

18:00AK BITARTEAN EROSKETAK EGITEN DITUZTENEK BONO-ZOZKETAN PARTE HARTU AHALKO DUTE


KOMERTZIOEN GIDA BERRITUKO DUTE BIZIKALEK, PIL-PILEANEK ETA UDALAK ELKARLANEAN

Txikia baina ederra

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: LEIRE ELIZBURU, MARIBI ALONSO ETA U.M.

Giro ederra izan zen aurtengo Gaztañerre azokan eta haren bueltan antolatutako ekimenetan. Eta kasu honetan ez da topiko bat. Batetik, sasoiz kanpokoak bai, baina bestela, eguraldiak enkarguzkoa zirudien. Bestetik, kalean ere giro polita nabari zen, jendea festa gogoz, eta asko eta asko baserritar jantzita. Azkenik, azokari dagokionez, bataren eta bestearen faltak eraginda, txikia izan zen tamainaz, baina bisitari kopuru handia erakarri zuen, batik bat, omenaldien, dantza saioaren eta bertsolarien bueltan, eta salmentak ere dezentekoak izan zituen. Giro bikainak, berriz, gerokoan segida izan zuen, eta arratsalde, iluntze eta gaueko ordu luzez iraun zuen aurtengo Gaztañerre egunak, kantuan, dantzan eta berriketan.





Gaztañerre eguna eskolan

Plaentxi Eskolan, azaroaren 11n, Gaztañerre azokaren bezperan ospatu zuten Gaztañerre eguna. Eskolako patioan elkartu ziren ume guztiak; ordurako, hantxe zegoen gaztaina-erre saltzailea, gaztainak bertan erretzen umeak zetozenarako. Bakoitzari periodikoarekin egindako kukurutxo bana eman eta gelaka korroan jarrita jan zituzten irakasleen laguntzarekin eta aurtan, ezustean, gehienak oraindik ere mauka motzean zirela.



ETXEBIZITZEN ENERGIA-AUTODIAGNOSTIKOA

“Norberak bere etxebizitzaren autodiagnostikoa egin ahal izateko irizpideak emango ditugu”

Debegesa etxebizitzaren energia-autodiagnostikorako egiaztapen-zerrenda lantzen dihardu.

Zergatik jarri duzue martxan ekimen hau?

Energiaren prezioak demaseko gorakada izan du eta Debegesa ditugun Birgaitze- eta Energia-zerbitzuetan kontsulten gorakada egon dela ikusi dugu. Jendea arduratuta dago eta bi gauza jakin nahi dituzte batez ere: batetik, nola aurreztu dezaketen; eta bestetik, energia era berriztagarriago batean nola ekoiztu dezaketen. Beraz, etxe guztietara ezin garenez iritsi irtenbide pertsonalizatuak ematera, pentsatu genuen interesgarria izan daitekeela gida bat sortzea, norberak irizpide batzuk eduki ditzan, gero bere kabuz etxebizitzaren hasierako diagnostikoa egiteko.

Gida sortzeko orduan, zein informazio eskatzen diezue parte-hartzaileei?

Gida tutorizazio-prozesu baten bitartez sortzen dugu. Izan ere, esperientzia errealean bitartez sortzen da. Horretarako, prozesu honetan parte hartzeko prest dauden etxebizitzak behar ditugu. Izena ematen dutenean, enpresa bat euren etxebizitzetara joango da bisita egitera eta bizilagunek informazio bat eduki beharko dute prest. Hala nola, azken hilabeteetako faktura energetikoak eta kontsumo ohiturak. Bestetik, energia kontsumo iturri diren elementuak zeintzuk diren begiratu dute (argiteria, etxetresna elektrikoak...) eta elementu horiek nola erabiltzen diren informatzea garrantzitsua da gero planteatu dute diren ekintzak benetan eragingarriak izan daitezkeen.

Gida horrek zein eduki izango ditu herritarrentzat?

Tutorizatzen ditugun etxebizitzek energiaren diagnostikoa izango dute. Bertan, etxebizitza



horretara egokituta egongo diren ohituren, inbertsioen, energia berriztagarrien eta dirulaguntzen inguruko gomendioak eta ekintza-plan bat jasoko dira.

Zertarako balioko du horrek guztiak?

Lehentasunak markatzeko, eragin elementuak nun ditugun jakiteko eta, gutxi gorabehera, arlo energetikoan ekintzarik garrantzitsuenak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko. Gero, tutorizazio prozesuarekin ikasiko dugu informazio eraginkorra modu errazean nola eman daitezkeen eta, horrela, irizpide batzuk emanaz hori jakinarazi nahi dugu, bakoitzak bere autodiagnostikoa egiteko baliabideak izan ditzan.

Etxebizitza gehiagok izena eman dezakete oraindik ekimen horretan?

Bai. Interesa dutenek agenda2030@debegesa.eus helbidera idatzi edo 943 82 01 10 telefonora deitu dezakete.

GUTUNAK

Kanpaien zarata gauean

KANPAIAK GAUEZ KENTZEAREN
ALDEKO HERRITARRAK

Kanpaien inguruan sortu den eztabaida dela-eta, argitze aldera hainbat aipamen:

Uda aurretik, herritar batzuk elizari kanpaiak gauez kentzea eskatu genion. Zegoen kanpai sistemarekin ezin zenez hori egin, elizak kanpaiak gau eta egunez kentzea erabaki zuen. Horrek herritar batzuen (500 firma) erantzuna bultzatu zuen, kanpaiak 24 orduz jartzeko eskatuz. Ondorioz, elizak berriro kanpaiak jarri ditu gau eta egun, nahiz eta sistema konpondu eta orain posible izan gauez kentzea. Elizak lehenago sistema konpondu eta bakarrik gauez kendu izan balitu, guk eskatu moduan, gauzak beste modu batera bideratuko ziren. Gauez kentzeko eskaera osasun arazoetan oinarrituta dago eta

aurtengo udako beroekin areagotu egin dira, ezin izan dugulako leihorik zabaldu. Deba bailaran, Eskoriatzan, Arrasaten, Oñatin, Bergaran, Eibarren, Mendaron eta Mutrikun kanpaiak gauez kenduta daude. Arantzazun bertan ere bai. Gure ustez hori oso adierazgarria da. Gure gizartean, isiltasuna gauez, preziatua da, aldiz, zarata ez. Adituek, behintzat, horrela diote. Elizarekin hizketan jarraituko dugu irtenbide bat emateko. Eskatzen duguna zentzuzkoa dela iruditzen zaigulako eta horrela pentsatzen dugunok hiru baino gehiago garelako. Herritarrei eskatuko genieke guzti hori ulertzea.

1972ko kintoak eta
adimen-desgaitasuna

IBAN ZAROBAREN GURASOAK

Gure ezinegona adierazi nahi dugu urriaren 2022an 50 urte

betetzen zituztenek egin zuten kinto bazkariaren harira, ez baitzituzten aintzat hartu balizko parte-hartzaile guztiak. Adimen-desgaitasuna duten bi pertsona falta izan ziren, gutxienez; ospakizunean parte hartzeko idatzi bako legearen arabera baldintzak bete arren (Soraluzen jaio edo bertan bizi) ez zituzten gonbidatu. Guk bakarrik nahiko genuke 50 urteko beste edozein pertsona moduan kontsideratzea eta euren edo euren senideen esku egotea ospakizunera joan ala ez erabakitzea. Ez dakigu zer gertatu den, baina uste dugu sentsibiltate falta eta utzikeria dela ahanztura hori. Are gehiago gaur egun, uste baikenuen aurrera egiten ari ginela guztion besteko eskubideak dituzten pertsona hauekiko berdintasunean eta normaltasunean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA





57. DURANGOKO AZOKA
2022ko abenduaren 7tik 11ra
www.durangokoazoka.eus

dkt
Debabarreneko
Komunikazio
Taldea



**Sorkuntzaren eta
jaiaren eztanda**


Durangoko Azokak "eztanDA!" egingo du abenduaren 7tik 11ra

Azken bi urteotako murrizketak alde batera lagata, ohiko formatua berreskuratu du aurten Durangoko Azokak. Abenduaren 7tik 11ra egingo da, *EztanDA!* lelopean, eta, aurrez aurreko salmentaz gain, online dendari ere eutsiko dio.

Gerediaga elkartearen presidente Nerea Mujikak azaldu duenez, 57. Durangoko Azokan euskal kulturaren "eztanda" biziko da: "Sorkuntzaren eta jaiaren eztanda izango da; Durango osotik eta Euskal Herri osorako zabalduko den eztanda. Bost egunez iraungo duen eztanda".

Idea horri tiraka sortu du, hain justu, Ruben Ramos diseinatzaileak aurtengo azokarako kartela. "Ilustrazioak unibertsoaren eta Big Bangaren hedapenera eramaten gaitu. Inklusibitatearen baitan, pertsona ezberdinen (ez emakume, ez gizon) ideiak, ilusioak eta norberaren imajinario koloreduna irudikatu dut. Kulturak berak, bai literaturak, bai musikak, beste leku batera eramaten gaituen isla".

Kartela ez ezik, DA! irudi korporatiboarekin batera zabalduko den ikono berri bat ere sortu du egileak aurtengo edizioarako: "Izar moduko ikono bat da, eztanda irudikatzen duena".



Kulturazaleak iazko azokan.

Ohiko gunekak

Ikasle Goizarekin emango diote hasiera egitarauari hilaren 7an. Bertaratuko diren milaka ikasleek hainbat jardueratan parte hartzeko aukera izango dute –komikiak sortzeko tailerrean edo *PortaDa!* erronkan, esaterako–. Eta, lehen aldiz, hezitzaileek tailerrak jasoko dituzte –hezuntzarako baliabide digital libreei buruzko saioan eta euskal kulturaren transmisioaren gaineko solasaldian–.

Horrez gain, bost eguneko kultura programazioa izango da bertaratzen direnentzat, hainbat gunetan banatuta: Irudienea,

Saguganbara, Ahotsenea, Kabi@, Talaia eta Szenatokia. Askotariko hitzorduak egongo dira bertan aukeran, beste behin ere.

Ahotseneako eszenatokian, adibidez, 47 talde arituko dira eta, azken urteetan bezalaxe, zuzeneko emanaldiak Plateruenan izango dira. Sarrera doakoa izango da eta ez da beharrezkoa izango aldezturik izena ematea. "Ahotsenea sortzaileen topalekuak 15 urte beteko ditu aurten eta ospakizun berezi honetarako bost eguneko musika-maratoia antolatu dugu", nabarmendu dute guneko arduradunek.

Online denda

Landako guneko aurrez aurreko erakusmahaietaz gain, aurten ere erosketak etxetik egiteko aukera egongo da abenduaren 7tik 10era. Denda digitalean –durangokoazoka.eus atarian– azokako nobedade guztiak egongo dira eskuragarri. Eta behin azoka amaituta, abenduaren 11tik aurrera, *Zu non, han Da!* egitasmoaren bitartez, Euskal Herriko hamaika dendatan Durangon aurkeztuko diren nobedadeak erosteko aukera egongo da, hirugarren urtez. Horrez gain, liburu aurkezpenak ere antolatuko dira hainbat saltokitan.

Argitaratzailea: Debabarreneko Komunikazio Taldea

Azala: Ruben Ramos

Erredakzioa: Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

Diseinua eta maketazioa: Oier Larreategi

Tirada: 18.710 ale

dkt

Debabarreneko
Komunikazio
Taldea



"Kulturari ekarpenik handiena sortzaile eta kulturazaleek egiten diote"

BEÑAT GAZTELURRUTIA GEREDIAGA ELKARTEKO KIDEA

Normaltasun egoera berreskuratuko du aurten Durangoko Azokak, eta horren nondik norakoak azaldu ditu Gerediaga Elkarteko Beñat Gaztelurrutiak.

Bi urteren ondoren, betiko formatua berreskuratuko du azokak. Pozik?

Bai, jakina. Azokarentzat urte zailak izan dira, gizarte osoarentzat izan diren moduan. Sasoi nahasiotan guztiok daukagu gauzak bere onera etorriko diren ametsa. Baina, susmoa dut, aurrerantzean dena izango dela gero eta desberdinagoa.

Zer eskainiko du aurten azokak?

Azoka barruko espazioaren antolamenduan aldaketa batzuk egin ditugu, liburuak eta musika bereiztuta. Apalategi bat ere montatuko dugu, euskarazko liburu berriak eskuartean hartu eta kontsultatzeke. Diskoen kasuan, QR kode bidez disko bakoitzeko kanta bat entzuteko aukera egongo da. Gauza gehiago ere bai, 250 aurkezpenetik gora gune eta hainbat diziplinatan eta abar. Onena bertara etorri eta norberak ikustea da.

Zein da Durangoko Azokak euskal kulturari egiten dion ekarpena?

Kulturari ekarpenik handiena sortzaileek eta kulturazaleek egiten diote. Azokaren lana da harreman hori indartzea, batzuei bere lana erakusteko plaza emanez eta bes-



Beñat Gaztelurrutia. ANBOTO

teei bila aritzeko bidea erakutsiz. Azokak egiten duen lan hori berori egiten dute urtean zehar hainbat eragilek. Dena den, ez naiz oso oker ibiliko esaten badut euskal kulturaren agerraldi handienetarikoa dela Azoka, eta hori ekarpen handia da, euskal kultura existitzen den froga garbia delako eta euskal kultura badela defendatzen dugunok indarrez betetzen gaituelako. **Pandemiak kulturgintza jipoitu zuen. Bi urteko etenaldi horri eman al zaio buelta?**

Ez nuke esango euskal kulturaren arazorik handiena pandemiaren jipoia denik. Benetako arazoa da ez garela nahikoa kulturazale kul-

tur-ekosistema osasuntsu bat mantentzeko. Horri ez badiogu heltzen bere ertz guztietatik, jai daukagu.

Datuen arabera, papera izugarri garestitu da, liburuak ez dira irakurtzen, diskoak ez dira saltzen... badirudi gauza asko kontra dituela Durangoko azokak. Zein espektatiba duzue aurtengorako?

Ertz asko ikutu dituzu galdera bakarrean. Paperaren garestitzea bizitzaren garestitzearekin lotu behar da, eta erosahalmena jaitzen denean badakigu kultura izaten dela kaltetuenetako bat. Diskoak ez saltzea digitalizaioarekin ere lotu behar da. Digitalizazioak gauza onak ekarri ditu, musikagintza "demokratizatu" egin du, autoekozipena sustatu du, bide berriak zabaldu ditu. Baina, aldi berean, euskarri fisikoa desgertzeko bidean jarri du eta, horrekin batera, sortzailearentzako diru-sarrerak. Bistan da arazoak asko direla eta Azokak berak bakarrik ez diela irtenbiderik emango guztiei. Uste dut asko hausnartu eta pausoak adostu behar direla eragileen artean, eta horrek eskatzen du hausnarketa zintzoak egitea eta eskuzabaltasunez jokatzeara.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Etorkizunari baikortasunez begiratu behar zaio beti. Ez gaitetzen autobetetako profetia baten jausi. Euskal kulturak egiturazko arazoak ditu, baina lanean gogoz ari den balio handiko jende pila bat ere bai. Nik neuk horri heltzen diot. Aurtengo Azoka behintzat ederra izango da, eta datozenak ederragoak izan daitezen lanean jarraituko dugu.

"Euskal kulturaren agerraldi handienetarikoa da azoka"

Debabarreneko uzta

DEBA - ITZIAR

LITERATURA



**ERIKA LAGOMA POMBAR
ETA ESTITXU FERNANDEZ
MARITXALAR 'M ama* eme*
ume*'**

Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.



JON ABRIL OLAETXEA 'Isildutako eskuak. Emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian'

Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.



CIRA CRESPO 'Tene Mujika. Udazkeneko argitan'

Debako Udala. Durangon Elkar-ek salduko du bere postuan.



NEREA LOIOLA '7G udalekuak'

Erein.
Aurkezpena: abenduak 10, larunbata, 13:30. Ahotsenean.



NEREA LOIOLA 'Epicentro'

Gaztelaz. Erein.



NEREA LOIOLA 'Naian'

Erein.

Aurkezpena: abenduak 10, larunbata, 17:00. Sagunbarren.

MUSIKA



**NEOMAK TALDEA** 'Neomak'

Airaka.

Aurkezpena: abenduak 8, osteguna,
15:40. Ahotsenean.**EIBAR****MUSIKA****MICE** 'Lautada'


Forbidden Colours.

**KOKEIN** 'Atomika'

Autoekoitzia.

**MARKOS UNTZETA** 'Ekilibrista'

Gaztelupeko Hotsak.

**SUTAGAR** 'Alarma'

Autoekoitzia.

**LORELEI** 'Ekografiak'


Elkar.

ELGOIBAR - MENDARO**LITERATURA****UXUE ALBERDI** 'La belle'

Elkar argitaletxea.

**DANELE SARRIUGARTE** 'Assata shakur autobiografia bat'

Itzulpena. Katakarak.

**DANELE SARRIUGARTE** 'Hamahiru ipuin'Luisa Carnesen ipuinen itzulpena.
Erein.**MUSIKA****JON GURRUTXAGA** 'Belar Hostoak I&II'

Elkar. Txomin Artolak, Walt Whitmanen testuekin, 1978an argitaratu zuen Belar Hostoak diskoaren moldaketa berria kaleratu du Elkar argitaletxeak lan bikoitz honetan. Artolak Mixel Ducau, Jean Phocas, Beñat Amorena eta Robert Suhas izan zituen bidelagun 78an. Lan hari keinua Jon Gurrutxagak, Urbil Artolak, Dani Venegasek,



Antxon Sarasuak eta Andoni Etxebestek egin diote oraingoan.



MARACA DIABLO 'Maraca diablo'
Screaminguy records.

ERMUA

LITERATURA

TXABI ARNAL 'Hiru lehoi'
Elkar argitaletxea.

MUTRIKU

MUSIKA



SAIA GOAIT 'Miazkatu'

Autoekoitzia. Musika Zuzenean erakusmahaian egongo dira diska saltzen.



DELIRIUM TREMENS. 'Hordago'

Mauka musikagintza.
Aurkezpena: abenduak 7, asteazkena, 21:30. Ahotsenean.

SORALUZE

MUSIKA

PAUL SAN MARTIN 'Single'
Gaztelupeko Hotsak.




MORAU ETA BEÑARDO 'Ardo'

Disko liburua. Gaztelupeko Hotsak.

SYMBIOSIS 5 Jazz Getxo

Gaztelupeko Hotsak.



MAINLANDER 'Mainlander'

Gaztelupeko Hotsak.



KIKE ARZA ELECTRIC QUARTET 'Biharko Mendekaitz'

Gaztelupeko Hotsak.




ORGANIZING 'Short Stories'

Gaztelupeko Hotsak.




THE NEW JAZZ COLLECTIVE 'Lucio Urtubia'

Gaztelupeko Hotsak.


RS FAKTOR (RUBEN SALVADOR) 'Equanimity'

Gaztelupeko Hotsak.

JON PIRIS & IÑAR SASTRE 'Pasieran'


Gaztelupeko Hotsak.


XAHU 'Gero gerokoak'

Gaztelupeko Hotsak.


HUTSUN + JEL TRIO Artze

Gaztelupeko Hotsak.


57. DURANGOKO AZOKA ONLINE
www.durangokoazoka.eus


**Online denda
zabalik
abenduaren 7tik
10era**

**Nobedade
guztiak
eskuragarri**

ESTANDA!

"15 bat disko argitaratzen ditugu urtean, seguru aski, Euskal Herrian gehien"

UBANE UZIN GAZTELUPEKO HOTSAK DISKOETXEKO KUDEATZAILEA

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak disko ugari izango ditu Durangoko Azokan salgai, euren banatzaile den Elkar argitaletxearen stand-ean; jazz asko, blues diskoak, disko-liburu tematikoa... musika mota asko eta artista mordoxkaren lanak ondu dituzte azokarako.

Zelako uzta eramango duzue Durangora?

Askotarikoa. Andoni Tolosa Morauk eta Beñardok ateratako ardoari buruzko disko-liburutik hasi, Markos Untzeta eibartarraren diskoetik segi, blues diskoak, jazz asko... Bestalde, Txuma Murugarrenena ere badugu, baina atzeratu egin da.

Artista asko egotea kasualitatea da?

Gaur egun, musikak dituen alda-ketekin, dibertsifikatu egin beharra dago; guk horrela egin dugu eta momentuz, ondo funtzionatzen digu.

Zergatik dibertsifikatu beharra?

Musika euskarri fisikoan geroago eta gutxiago saltzen da. Lehen ateratzen zenuen produktu gutxi eta horietatik asko saltzen zen; orain, berriz, produktu gehiago atera behar dira, izan ere, horietatik gutxiago saltzen da.

Diskoen ezaugarriak ere aldatu dira? Motzagoak dira...

Ez, lehengo modukoak. Azken batean, diskoak zuzenekoan defendatu behar dira eta zuzenekoak ordubete pasako kontzertuak izaten dira.

Aipatu dituzun izenen artean badaude aspaldiko klasikoak, 'Morau', adibidez...

Bai, Andoni Tolosa etxekoa da, aspaldi ezagutzen dugu. Gainera, oso emanaldi kurioa egin du, ardoaren inguruko tematikoa, Biba Ardoak-ekin elkarlanean... Soraluzen izango da emanaldia abenduko lehen asteburuan; beste hainbat lekutan ardo kata eta guzti egiten du. Adibidez, Chillida Lekun, Biba Ardoak-ek ardo ipini zuen eta Chillida Lekun pintxoak, musika entzutera joatea baino gehiago izan zen, esperientzia oso bat.

Aurten, baina, ez zarete egongo Durangoko Azokan Gaztelupeko Hotsak moduan...

Fisikoki ez. Gaur egun, musika enpresa guztiak orokorrean txikiak dira; guk bestelako lan karga han-

dia dugu Gabonen buelta honetan eta ezin gara biderkatu. Elkar da gure banatzailea eta han egongo dira gure produktuak.

Bestalde, gauza asko eramango dituzue, baina beste asko ezin dituzue eraman, ezta?

Horrela da. Durangoko Azokara, hemengo musikariak izateaz gainera, euskarazko produkzioa eraman behar da. Guk, berriz, produkzio asko dugu ingelesez, blue-sa, batik bat, eta horrek han ez dauka lekurik.

Liburugintza ere lantzen duzue; hortik eramango duzue zerbait?

Ez. 2022ko erabakietako bat izan da libururik ez publikatzea. Guk bi urte daramatzagu digitalizatze prozesuan eta ez dugu gaitasunik denean egoteko. Musika salmentara bera digitalera doa.

Buruhauste handia da?

Hori baino, beste lan batzuk egitea eskatzen duela. Gainera guri musika fisikoa eta zuzenekoak gustatzen zaigu, oso arrotza egiten zaigu bestea.

Zailtasunak zailtasun, Euskal Herrian gehien produzitzen duen diskoetxea da Gaztelupeko Hotsak?

"Gaur egun produktu gehiago atera behar dira, izan ere, horietatik gutxiago saltzen da"



Ubane Uzin Durangoko Azokara eramango dituzten produktuetako batzuekin. FERNAN OREGI.

Bai, seguru aski bai. Urtean erreferentzia asko ateratzen ditugu, gutxiago saltzean disko gehiago atera behar ditugulako urtean salmenta iturriak antzerakoak izateko. Urtebetean, 15 bat disko (erreferentzia) argitaratzen ditugu.

Hala ere, zuen helburu nagusia ez da izan inoiz salmenta handiak lortzea edo udako kantak sortzea...

Bueno, hortik bizi gara, baina beti izan gara ibilbide luzeko produktak ateratzekoak. Gu gara Serie B. Eta ohore handiarekin, gainera.

Zenbat erreferentzia ditu Gazte-lupeko Hotsak diskoetxeak?

450etik gora, 90eko hamarkadatik hona.

Eta zeuen lekuari eusten segitzen duzue.

Bai, geroago eta gehiago gaude espezializatuta musika beltzean eta oso-oso gertuko diren euskal artistekin. Egia esan, beti esaten dugu ez garela sartu behar gauza berrietan, baina batzuetan etortzen zaizkigu gauza berriak, bigundu egiten gara eta aurrera egiten dugu. **Artista berriendako, baina, bazarete erreferentzia...**

Bai, baina geroago eta zailagoa da artista berri batekin aurrera egitea. Nik uste dut musikagintzan, disko eta kantu on bat egin ahal dela,

"Durangoko Azokak beti ematen du zerbait eta produktu berriak ateratzeko epe bat jartzen du"

baina gero hori taula gainean defendatu egin behar da eta gaur egun benetan zaila da. Antzokietakoek nahi dute antzokiak beteko dituzten artistak. Eta halako gutxi daude. Lehen, musika taldeek bira egiten zutenean, Sorailuzeko Gaztetxea bira horren barruan zegoen, kontzertu areto modura. Edo txosnaguneak ziren sasoi batean artista berriendako aukerak. Orain, berriz, txosnaguneetara ere talde handiak joaten dira. Hasi-berri batendako oso zaila da. Eta egon badaude. Begira Debagoienan egiten ari diren Danbakan zenbat talde dauden. Baina, leku ofizialetan taldeek bete behar dituzten baldintzak oso nekezak dira: Gizarte Segurantzza, nominak... ordaindu behar dituzte, ondorioz, amateurismoa asko moztu da. Amateurrek ere profesionalen pareko baldintzak bete behar dituzte eta hori musikagile edo musika talde berri batendako benetan zaila da.

Durangoko Azokara bueltatuz, ematen dio bultzada musikagintzari?

Nik uste dut beti ematen duela zerbait. Eta gainera, epe bat jartzen du, eta produktu berriak Durangoko Azokari begira egiten dira. Gauzak asko aldatu dira, baina Durangoko Azoka bera ere asko aldatzen ari dira.

"Garenak gara, iraganean halakoak izan ginelako"

ASIER SERRANO LORELEI

Lorelei musika taldeak 'Ekografiak' (Elkar, 2022) izeneko diskoa kaleratu du taldearen sorreraren 25. urteurrenean.



Zerk bultzatu zaituzte bi hamar-kadaren ondoren disko berria kaleratzera?

Orain dela hiru urte kontzertu batzuk emateko elkartu ginen, ilusioarekin eta, batez ere, herdoila kentzeko. Hamar kontzertu izan behar ziren, baina pandemiaren ondorioz hiru eman genituen. Oso harrera ona izan genuen. Gero, bakoitzak bere odisea edo miseria pertsonalak pasa zituen. Niri, adibidez, lepoko ebakuntza larria egin zidaten. Ondo atera zen, baina min neuropatikoa eratu zitzaidan besoa eta ez negoen ezertarako. Orain animoz hobeto nago, baina joan den urtea gogorra izan zen. Orduan, Nortonek, animatzeko edo, diskoa grabatzea proposatu zidan.

Eta baiezkoa eman zenion?

Nahiz eta sormenerako panggal egon, Nortonek lehenengo abestiaren doinua pasa zidanean, nagitasunez, baina heldu egin nion. Barealdia sentitu nuen, gertatzen

ari zitzaidanaz berba egiten nuelako. Diskoan sentimendu unibertsalak jarri nahi izan ditugu, baina abiapuntu oso intimotik. Modu terapeutikoan edo, beste kantuak konposatzen hasi nintzen Nortonekin eta disko hau "behin betiko diskoa" izan zitekeela pentsatu nuen. Ez azkena, baina bai herentzia moduan lagatzeko diskoa. Loreleik eman didana eta niretzat duen esanahia islatu nahi izan dut bertan.

Nolakoa izan da grabaketa?

Iazko abenduan eta urtarrilean grabatu genuen diskoa, eta orain arte sekretuan eduki dugu. Ia urtebete egon da izozkailuan, minak

"Diskoan sentimendu unibertsalak jarri nahi izan ditugu, baina abiapuntu oso intimotik"

noiz baretuko eta noiz indarberrituko zain, irailean argitaratu arte. Prozesu lasaia izan da. Sasoi hauetan diskoek beste toki bat hartu dute eta Elkar argitaletxeok esaten ziguten zaharrak garela eta presarik ez dugula. Beraz, lasai hartu dugu, beste arlo batzuetan indarra jarri (diskoaren azalean, adibidez) eta artefaktuaz gehiago gozatu dugu.

Aita izan zara berriki. Horrekin zerikusia du 'Ekografiak' izenburuak?

Horrekin lotuta dago, baina era berean ez. Azken urteetan proba mordoa egin dizkidate eta ekografie sasoia batetako tarot irakurleen zentzua hartu diet. Ekografie oihuak jaurtitzen dituzte eta horren erantzuna jasotzen dute. Kontzeptu horretan sakondu nahi izan dugu. Izan ere, adin honetan gure gorputzen mugimenduak neurtzen ditu eta, bestetik, iraganean botatako oihuak gaur egun nola jasotzen ditugun



Mikel Gorosabel 'Norton' eta Asier Serrano berriz elkartu dira Loreleiren disko berria sortzeko.

adierazten ditu. Orain garenak gara, iraganean halakoak izan ginelako.

Letretara joz, zertaz jardun duzu? Ikuspuntu pertsonalak azaltzen dira azalean eta letretan, baina nahiago dugu entzuleek berera egokitzea. Azken neurrian, ni guztiak dira ezberdin, berdinak dire-

lako. Abestiek galderei buruz eta Eibarko haurtzaroz berba egiten dute, besteak beste. Batez ere, nola ihes egin dezakegun zuri-beltzetik koloreetara. Hau da, guk aukeratu dezakegula ekografia margotzea.

Iraganean oihartzun indartsua laga zuen Loreleik, hainbeste

urtetan isilik egon ondoren publikoak beso zabalik hartu zaituztelako. Nola bizi duzue hori?

Niretzat oso hunkigarria izan zen kontzertuak berriz ematea. Andoainen izan zen lehen kontzertua eta ez negoen urduri, shock egoeran baizik. Ez gatoz gazteei lekua kentzera, hori ez da gure helburua, ezta belaunaldi berriak konkistatzera ere, baina ikustea gure belaunaldiko jende hori kontzertuetara etorri zela, ez dakit gaztetzera edo nostalgia musukatzeraredo, izugarria izan zen.

Zuen musika ondo zahartu den seinale?

Orain dela 25 urte, guk ez dakit, baina Gaztelupeko Hotsakek asko arriskatu zuen. 90. hamarkadan ez zen ohikoa eta zailtasunak zeuden gure eskaintza jasotzeko. Hau da, poesia eta pop-rock musika eskaintzea, heavy eta punk eszena zegoenean. Sasoi horretan diskoen salmentek agintzen zuten eta, gure harriurarako, gureak funtzionatu zuen.

"Ez azkena, baina disko hau "behin betiko diskoa" izan zitekeela pentsatu nuen"



Antxon Sarasua, Mikel Gorosabel, Asier Serrano eta Loiola Madera.

Ahotseneako egitaraua

Asteazkena 07

OLAIA INZIARTE 14:30-15:00



MARACA DIABLO 15:40-16:10

ZAKILL 16:50-17:20

SUA 18:00-18:30

BOLBORA 19:10-19:40

GOXUA N'SALSA 20:20-20:50



DELIRIUM TREMENS 21:30-22:00

Osteguna 08

BILAKA 11:00-11:30

PIZTIAK 12:10-12:40

INES OSINAGA 13:20-13:50

RODEO 14:30-15:00



NEOMAK 15:40-16:10

HIBAI 16:50-17:20

KURKUMA 18:00-18:30

WILLIS DRUMMOND 19:10-19:40

KRISTONAK 20:20-20:50

SUTAN 21:30-22:00

Ostirala 09

LUMI 11:00-11:30

ILARGI 12:10-12:40

AGUR 13:20-13:50

MIRUA 14:30-15:00

XSAKARA 15:40-16:10

MUGAN 16:50-17:20



KOKEIN 18:00-18:30

KEIA 19:10-19:40



MICE 20:20-20:50

EZPALAK 21:30-22:00

Larunbata 10

PASADENA 11:00-11:30

ASSATA 12:10-12:40


ASLA 13:20-13:50

KYXO 14:30-15:00

PERU GALBETE 15:40-16:10

ESTI MARKEZ 16:50-17:20

DUKKHA 19:10-19:40



BENGO 20:20-20:50



ØDEI 21:30-22:00

Igandea 11

ARIMA SOUL 11:00-11:30

FUFU 12:10-12:40

ORBEL 13:20-13:50

TXOST! 14:30-15:00

WATSON 15:40-16:10

IRTERA 16:50-17:20



MERINA GRIS 18:00-18:30

JANUS LESTER 19:10-19:40

BURUTIK 20:20-20:50

MAIRU 21:30-22:00

HAUSNARKETA

Zabaldu dute Eroski supermerkatua

Herritarrei galdetu diegu zelan ikusten duten Eroski zabaldu izana



**ANE FIDALGO ETA IRATI
HERNANDEZ**

"Lehen egunean joan ginen, oso pozik. Kopuru handiko erosketa eginez gero, prezio txikiagoa du, baina gauza txikiak erostea ez da horren merkea, adibidez, euro batekin justu-justu erosi dezakezu zerbait. Herriko denda txikiei kalte egingo die; herritarrei mesede".



**UNAI GABILONDO ETA
IRAULTZA DIEZ**

"Egon gara Eroskin bai. Polita eta uste baino handiagoa iruditzen zaigu. Herritarrei mesede egingo die, behar genuen horrelako leku bat, jende asko kanpora joaten zen erostera eta orain herrian erosiko dute. Hori bai, denda txikiei kalte egingo die".



SANTOS ELIZBURU

"Ni oraindik ez naiz egon Eroskin, akaso joango naiz noizbehinka baina jarraituko dut Kooperatiban erosten. Nire ustez, demaseko kaltea egingo die denda txikiei, hori argi dago eta dagoeneko hori igartzen da kooperatiban, atzo bai eta gaur ere".



DOROTEA CARRASCO

"Egon nintzen. Ondo iruditzen zait. Kanpora joaten zen jende askok orain ez du kanpora joan beharrik izango. Hori bai, herriko denda txikiei kenduko diela egia da. Baina egia da, baita ere, jende askok kanpoan erosten zuela, beraz, nahi duena joan dadila eta ez duenak nahi ez".

PUNTUA



REGINA MAIZTEGI

Mendiak babestu, zertarako?

Zergatik babestu nahi dugu Karakate? Zertarako babestu nahi ditugu inguratzen gaituzten mendiak? Herritarren iragana, oraina eta etorkizunaren sostengua direlako.

Mendian ontzen da bizitzarako behar dugun guztia: mendiak ematen dizkigu edateko ur osasuntsua eta arnasteko aire garbia; menditik abiatzen dira errekek, eta ibaira isurtzen; menditik jasotzen dugu janaria (tranpa egiten dugu: beste lurralde urrunago batzuetako mendiek ematen dutena jaten dugu gehien bat); mendian hartzen ditugu eraikinetarako harri, zur eta bestelako gaiak; menditik hartzen dugu sutarako egurra; mendiak ematen die gure ezinegonei atsedena eta pizten ditu gure alderdirik argienak; mendietan oroitzen ditugu joan zaizkigun senide eta lagun maiteak.

Mendietako tontorretan hasten da bizitzarako behar dugun guztia. Milaka urtetan mendi-gaina izan da gure aurretikoen bizilekua, aztarnek argi erakusten duten moduan. Eta krisi betean gaudelarik, mendiak eskainiko digu etorkizuna. Nork sinistu dezake mendirik gabe, bertan dauden ekosistemak eta hala moduz bizirauten duten izakirik gabe, bizi gaitzekeenik?



Presak eraitsi ibaia leheneratzeko

Ibaiak leheneratzea helburu duen Merlin proiektu europarrak herriko lau presak botatzea proposatu du ibaiarendako eta herriarendako onuragarria izango dela argudiatuta. Udalak mahaigainean du gaia eta hilabete gutxiren buruan erabaki beharko du baimenik ematen duen ala ez.

Testua: **Egoitz Unamuno**

Argazkiak: **Fernan Oregi**

Merlin edo *Mainstreaming Ecological Restoration Landscape Innovation* (Leheneratze ekologikoa eta paisaia berrikuntza) Europar Batasunak finantzatutako ingurumen proiektua da. Proiektuak 22 milioi euroko aurrekontua du, eta Finlandian hasi eta Portugaleraino bitarte, 17 hezegune edota ibai berreskuratzeko ekintzak biltzen ditu bere baitan.

Aukeratutako ibai horien artean dago Deba ibaia, eta Merlin proiektuak bertan planteatzen duena da ibilbidean zehar dauden eta dagoeneko erabiltzen ez diren 10 presa botatzea. Lan horiek Europar Batasunak finantzatzen ditu %100ean eta Deba ibaiko egitasmoa kudeatu eta inplementatzeko ardura, berriz, EHUKo ingurumen departamentuarena eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena da (EHU ikerketaz arduratzen da eta Aldundia lanen exekuzioaz).

Ekosistemarentzako oztopo

Irailean, EHUKo eta Aldundiko ordezkariak Merlin proiektua aurkezteko saioa antolatu zuten eta bertan Arturo Elosegi EHUKo katedradunak hartu zuen hitza. Elosegiren esanetan, Europan hezeguneak eta ibaiak dira degradatuen dauden ekosistemak eta isuriekin batera, presak dira kalte eragile nagusiak: "isuri toxikoekin batera, ibaietan eraikitako presak dira ibaiei kalterik gehien eragiten dietenak, batez ere, arrainen eta beste hainbat bizidunen joan-etorri



Igarateko presa.

naturala oztopatzen dutelako baita gainerako bizidunena ere. Ibaien arazo nagusienetako bat da zatituta daudela". Europar Batasunaren kalkuluen arabera, Europako ibai eta erreketan milioitik gora presa edo barrera daude; Gipuzkoako ibaietan, berriz, 1.000 inguru. Hain zuzen, Foru Aldundiak abian du 2035era bitartean 228 kentzeko plana eta horietatik 100 kendu dituzte dagoeneko. Deban ibaian, Gatzagatik Sorluzerainoko zatian 205 presa edo oztopo artifizial daude kontabilizatuta.

Elosegik azaldu zuenez, hainbat urtetan, pasabide artifizialak eraikitzea izan da oztopo horiek gainditzeko planteatu izan den irtenbidea baina "ikerketek erakutsi dute eskailera edo pasabide horien efizientzia oso txikia dela, alegia, oso arrain gutxik lortzen dutela horietan barrena mugitzea. Hori dela eta, gaur egun, ibaiak berreskuratzeko aktuzioetan eta arategietan hartu den irizpide nagusia da erabiltzen ez diren presak eraistea. Erabiltzen direnak ezin dira eraitsi eta horiek hor jarraituko dute baina helburua da ahal denik oztoporik gehienak kentzea".

Bizidunen mugimendua oztopatzeaz gain, presek bestelako kalteak ere eragiten dituzte ibaien habitatean: "Batetik, ur lasterrak behar dituzten hainbat espezie ez dira ondo moldatzen ur geldoetan, esaterako, amuarrainak, eta bestetik, ubarroiak bezalako hegaziak ugaltu egiten dira. Gainera presetan lokatza zikina pilatzen da, metanoa sortzen da eta uraren depurazio egokia eragozten du...".

Lau urteko epea

Merlin proiektuak lau urteko epea du egitasmoak gauzatzeko. Deba ibaiko lanak udan abiatu ziren lau presa botata (Mendaro, Altzola, Bergara eta Arrasate). Gainerakoak datozen bi urtetan bota nahi dituzte, laugarren urtea ikerketarako gordeta.

**EUROPAKO IBAIETAN
MILIOTIK GORA PRESA
EDO BARRERA DAUDE;
GIPUZKOAKO IBAIETAN,
BERRIZ, MILA.**

Uholde arriskua

Uholde arriskua ere aipatu zuten: "Ura Agentziak dio Soraluzen uholdeak izateko arriskua bertako presek handitzen dutela. Planak eginak daude eta txostenak dio hori eginez gero mendean bitan gertatzen diren tamainako uholdeak eragotziko direla eta errekek erresilienteagoak izango direla klima aldaketari aurre egiteko".

Otsailera arteko epea

Merlin proiektuaren bultzatzaileek behin eta berriz adierazi dute Soraluzeko lanen gainean azken berba udalak izango duela eta eurak erabaki horren arabera jokatuiko dutela. Aldundiko iturriek jakinarazi dutenaren arabera, udalak otsailera arteko epea izango du erabakia hartzeko.

Bat osorik bota eta hiru partzialki

Merlin proiektuak planteatzen du Soraluzen lau presa eraistea; bat osorik, Zuloagakoa, eta beste hiruak partzialki, Oleagakoa, Malmeronekoa eta Igaratekoa. Partzialki, Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zentroak babestu beharreko ondareztat izendatu dituelako, batez ere Malmeronekoa eta Igaratekoa. Horiei, presaren erdialdeko zatia bakarrik kenduko liokete, hori ere partzialki, metro beteko altuerara arte.



Malmeroneko presaren aurreikuspena 3Dan. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Oleagako presaren aurreikuspena 3Dan. GFA



Igarateko presaren aurreikuspena 3Dan. GFA



Arturo Elosegi ibetondoa.

"Presak botata ibaiak ibilgu naturala izango luke"

ARTURO ELOSEGI EHU-KO INGURUMEN KATEDRADUNA

Tailerretan zer iritzi jaso dituzue?

Leku guztietan bezala badira aldeko eta kontrako iritziak eta azken horiek tailerretako batzuetan nahiko berotu dira. Erreka ezagutu duten moduan gustatzen zaie, batez ere ur geldo hori, eta horren arabera eraikitzen dituzte euren argudioak, eta batzuetan eztabaida zail batera iritsi gara. Guk, adibidez, erakusten diegu presak kentzeak uholdeen arriskua murriztuko duela, baina orduan esaten dute Gipuzkoan badaudela arrisku handiagoa duten lekuak. Bale, baina hemen arriskua sortzen dutenak presa horiek dira... Esango nuke eztabaida nahiko geldirik dagoela momentu honetan.

Zer esango zenieke soraluzetarrei?

Hau Deba ibaiaren hobekuntza ekologikoan emandako

urratsen gainean beste bat dela. Orain arte gauza asko egin dira saneamendurekin, araztegiekin eta abar, eta momentu honetan hasi gara ikusten ibaiak daukan arazo nagusietako bat presak direla. Presek arrainen mugimendu ezintasuna eta hemengo habitat artifizial hau sortzen dute. Orduan, horiek partzialki kentzean, neurri batean hori konponduko dugu. Ekosistemarentzat onuragarria izango da eta gainera jendearentzat ere bai. Batetik, uholde arriskua murriztuko da, bestetik, ur geldo hauetan izaten diren lokatza zikin horiek eta horrekin lotuta dauden usain txarrak desagertuko dira. Orduan, pentsatzen dugu abantaila bat ematen duela, herriak gehiago estimatuko du bere ibaia, errazagoa izango da bertara hurbiltzea, ibai

ertzetik paseatzea eta gainera ibai horrek ekartzen dituen arriskuak murriztu egingo dira.

Udalak erabakiko balu presa denak edo presa bat ez botatzea, zer suposatuko luke?

Berez, onena litzateke lau presak botatzea, baina presa bat botatzeak ere badakartza bere onurak. Beraz, gure aldetik behintzat, ikusi nahiko genuke edozein presa botatzen, horrek zein ondorio dakartzan aztertzeko. Gainera, pentsatzen dugu presaren bat botako balitz, seguruenik jendeak galduko liokeela beldurra presak botatzeari. Beste leku batzuetan ere izan da hasieran nahiko kontrako iritzia, baina ikusi dutenean erreka nola geratu den, denbora gutxian jendea hori onartzera iritsi da.

Zein dira epeak?

Merlin proiektuak lau urte ditu gauzatzeko eta lau urte horietan bota nahi ditugu hamar presak. Bueno, nahiko genuke lehen hiru urtetan botatzea, gero ondorioak aztertu behar direlako eta abar. Egutegia ez dago itxita, presak botatzea itxita ez dagoen bezala. Azkenean guk egin dezakeguna da gizarteak onartzen duena. Soraluzekoak botako ez balira, beste leku baten, Deba bailaran bertan, topatuko genituzke beste batzuk botatzeko. Kontua da dagoen dirua presak botatzeko dela eta horren azterketa egiteko, ez beste ezer egiteko. Beraz, batek pentsa lezake hemen "beste gauza bat egitea interesgarriagoa litzateke", baina hori ez da Merlini eska dakiokkeen zerbait. Hori beste nonbaitetik egin beharko litzateke.

Askotariko iritziak herrian

ALDERDIEN ETA HERRITARREN IRITZIAK MERLIN PROIEKTUAREN GAINEAN

Maiatzean, EHUKo ingurumen saileko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak herrian Merlin proiektua europarra aurkeztu eta presak botatzea proposatu zutenetik proiektuak askotariko iritziak sorrarazi ditu herritarren artean. Publikoki euren iritzia agertu duten herritarrek, esaterako, oso iritzi polarizatuak azaldu dituzte: batzuek Merlin proiektuarekin bat egin duten bezala, beste batzuek presak bere horretan mantentzearen alde egin dute, azpimarratuz eraikuntzok tinko

babestu beharreko plazentziatarren ondare kultural eta arkitektonikoa direla (azken iritzi honetakoak dira berriki Gure Deba Ibaia izeneko taldean batu diren herritarrek). Ezin ukatu, zenbait herritarrengan gaiak ardura eta kezka piztu duela.

Udal-gobernuak posizionamenturik ez

Bitartean, EAJk eta PSE-EEK osatutako udal gobernuak ez du posizionamendu publikorik azaldu eta Iker Aldazabal

alkateak Pil-pileani jakinarazi dionez, oraingoz EAJ barruan “gaia lantzen” jarraituko dute eta ez dute inolako adierazpen publikorik egingo. PSE-EEK, berriz, “adostasuna” lotzearen garrantzia azpimarratu du, “irizpide tenikoak eta ingurugirokoak” lehenestearen alde eginez. EH Bilduk, bere aldetik, Hiru Antolamendurako Plan Orokorrean onartuta dauden irizpideak ezarri ditu eztabaidaren abiapuntu gisa eta udal-gobernuaren “lidergo falta” salatu du.



Irizpide teknikoetan eta ingurumenekoetan oinarritua

PSE-EE UDAL TALDEA

Soraluzeko PSE-EEen badakigu Merlin proiektuak askotariko iritziak sortu dituela eta gaiaren inguruan hartzen den erabakia ez dela mundu guztiaren gustukoa izango.

Plan Orokorrean jasota dago

Merlin proiektuak suposatzen du 4 presa kentzea Deba ibaia Soraluzen pasatzen den zatian, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak azaldu duenez, funtsezko bi helburu ditu: uraren jario naturala eta arrainen migrazioa erraztea eta uholdeak izateko arriskua murriztea. Helburu horietako bat ere ez da zentzugabekoa,

nahiz eta, jakina, helburu horiek lortzeko moduari dagokionez hainbat ikuspegi egon daitezkeen. Are gehiago, Deba ibaian neurriak hartzeko beharra, bai ingurumena hobetzeko, bai uholde-arriskua murrizteko, jasota dago jada Soraluzeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean. Plan hori 2017an onartu zen aho batez eta gaur egun indarrean dago.

Adostasuna, onura eta irizpide teknikoak

Beraz, proiektuaren bueltako faktore guztiak eta sortzen duen iritzi aniztasuna kontuan

hartuz gero, uste dugu erabakia ez dela presaka hartu behar, eta beharrezkoa dela proiektuaren alderdi desberdinak aztertzen eta baloratzen jarraitzea, lehenik eta behin udalean ordezkaritza duten alderdi guztien artean eta gero Aldundiarekin ahalik eta proiekturik onena adosteko. Izan ere, guretzat garrantzitsuen da egiten dena ondo egitea, ahalik eta adostasun handienarekin egitea, Soraluzerentzat zalantzarik gabeko onura suposatzea eta berau oinarritzea irizpide tekniko eta ingurumenekoetan.



Presak laga edo kentzea baino konplexuagoa da gaia

EH BILDU UDAL TALDEA

Azken urteotan, Ura Agentziak presak eta zubien zutabeak jarri izan ditu jopuntuan uholdeen arriskua murrizteko. Hori dela eta, 2016an alderdi guztiok onartutako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrak (HAPO) jasotzen du presen altuera murriztu (zenbateko zehatzik gabe) eta zutaberik gabeko zubi berriak ezarri beharra. Izan ere, aktuazio horiek egiteko konpromisorik hartu ezean, Ura Agentziak ez zukeen baimenik emango HAPOan ibai-ertzetarako planteatzen diren egitasmoak gauzatzeko, esaterako, Olalde eta SAPA eremuetan planteatuta daudenak.

Udaletxeak lidergorik ez

Ostera, Merlin proiektua herrira etorri denean, udaletxeak ez dio garrantzirik eman irakurketa hori sozializatzeari. Ez horri, ezta ibaiaren berreskurapen egoki baterako beharrezkoak diren bestelako neurriak aztertzeari ere: herri barruan saneamendu saretik kanpo dauden isuriak amaitzea, ibaia garbi mantentzea (batez ere plastikoen arazoari helduz), espezie inbaditzaileak erradikatzea...

Gaiari integritasunez heltzeko beharra

Esan bezala, HAPOa indarrean ezartzearekin batera, alderdi politiko guztiok onartu genuen etorkizunean presekin zerbait egin beharko zela. Egon daiteke erabaki hori ere ezbaian jarriko duenik baina gainerakoan, soraluzetarrok ondorengo galderari erantzuteko atakan gaude: "Zein litzateke presen eraldaketa egokiena uholde arriskua murriztu, ibaia bizigarriago bihurtu eta kultur patrimonioa egoki zaindu dadin?" Heldu diezaiogun gaiari integritasunez eta daukan dimentsioan. Ez arazo gisa, aukera moduan baizik.



Merlin proiektuari bai!

JOXEAN INURRIETA HERRITARRA

Merlin proiektuaren kontrako idatzietan inork ez ditu ukatu abantailak: ibaiaren osasuna hobetzea, landare eta arrainak zein animaliak ugalduz; kalteak gutxitzea aldaketa klimatikoak ugarituko dituen uholdeetan; ura oxigenatzea, ur geldotan galtzen duen oxigenoa gehiago baita gero saltoan errekuperatzen duena baino; arrainek aukera izatea ibaian gora eta behera egiteko, frogatu baita arrainek zailtasun handiak dituztela eurentzat eraikitako eskala edota arrapaletan barrera mugitzeko; espezie inbaditzaileentzat hain egokiak diren eremuok

desagertzea; ibairako irisgarritasuna erraztea; eta Europak 2030rako dituen helburu ekologikoak betetzea. Gainera, Udalak ez du ezer ordaindu beharko, 22 milioi euroak Europatik baitatzen.

Proiektuaren kontra daudenek zalantzan jarri dituzte EHUKo adituen jakintza eta jokabidea, eta juizio sinplez eta azkarrez baztertu dute sakon eta zientifikoki landutako proiektua. Apokaliptikotzat jo dute presen argazkia aldatzea, baina ur lamina deitzen dioten hori txapapotea eta metano isuria estaltzen duen alfonbra da. Gainerakoak ibaia beste

egoera batean ezagutu genuenon oroitzapenak dira. Horiek ez dizkigu inork ezabatuko eta gure bizitzaren parte izango dira beti.

Ostera, gaurko gazte eta umeez ez daukate nagusiok daukagun ibaiarekiko lotura emozional bera, eta nagusiok ez daukagu eskubiderik gure zama emozionala hurrengo belaunaldiari pasatzeko. Erabakia udalbatzarrari dagokio eta koherentziaz, Karakaten bezala, ibaiaren kasuan ere ekologiaren alde egin behar da apustu, aldaketa klimatikoaren aurrean ez dagoelako erdibiderik.



Merlinen alde ezkutua

GURE DEBA IBAIA TALDEA

'Gran Wyoming'ek esaten duen moduan, "dagoeneko Merlinen propaganda ezagutzen duzue, orain kontatu ez dizuetena azalduko dizuegu".

Merlin proiektuaren helburua da aberastasuna sortzea, ekologiaren bitartez

Eta demostratzeko, hamazazpi kasu izango dira Europar barrena, horietako bat Deba ibaian. Merlinen arabera, Mendaro-San Prudentzio tartean hamar presa botata basogintza, nekazaritza eta turismoa suspertuko dira, "bio" edota ingurumen enpresa berriak sortuko dira, indar elektriko gehiago ekoiztuko da eta administrazioa ekonomikoki hobetuko da nabarmen. *Hau dena sinesteko modukoa al da?*

Merlin proiektuak behartzen du kostu-onura azterketa egitera

Aberastasuna sortuko dela demostratzeko, Merlin proiektuak agintzen du kostu-onurak aztertzeko, ekonomikoak eta ez ekonomikoak. Deba ibaiaren kasuan, esan dutenez, ez dute inolako azterketarik egiteko asmorik. *Ba al dakite Soraluze nola geratuko den?*

Soraluzerako balizko onura ez ekonomikoak agertzen/desagertzen ari dira.

2022ko udan, Merlin taldeak lau onura azpimarratu zituen euren web orrian. Onura 'izarra' arrainen zirkulazioa zen. Oso garrantzitsua omen zen, maiatzean tailerra eta guzti egin genuen eta. Baina azaroan, bat-batean, 'arrainen onura' eta beste onura bat web orritik desagertu dira, eta beste hiru berri agertu. *Serioa al da honenbeste gora-behera izatea?*

Soraluzen askoz kaltegarriagoak dira mendiko urak, ufalak baino.

Ufalten mamua astintzen dihardute, baina Euskal Ur Agentziak ez du Soraluze arriskuen lehen mailan sartu (2022ko apirila). Eta Gipuzkoako Aldundiak, aldaketa klimatikoa eta ufalak aztertzerakoan, ez du Soraluze aipatzen (2018ko azaroa).

Herria ezagutzen duen edozeinek daki, euri handiak direnean arriskua ez datorrela ibaitik, mendietako erreketatik baino. Ufalaren eraginak Carmelo Mendizabal zubian hasten dira. Presak botatzeak ia ez du eraginik izango ufalak eragozteko. *Benetan ezagutu eta aztertu dute herria?*

Gai honek Soraluzerentzat daukan garrantziagatik, herriak erabaki behar du: erreferenduma eskatzen dugu.

Badira oraindik beste puntu asko ezkutuan geratu direnak. Horregatik, aurki aurkezpen publikoa egingo dugu horiek denak azaltzeko.

ANTZERKIA



Luze edo Motz

Eguna: Azaroak 27, domeka
Ordua: 19:00
Lekua: Antzokia
Antolatzailea: Soraluzeko Udala

LIBURU-AURKEZPENA



Bidea da borroka

Eguna: Abenduak 1, eguena
Ordua: 19:00
Lekua: Gaztetxea
Antolatzailea: Bertsora

KONTZERTUA



Ardo (Morau eta Beñardo)

Eguna: Abenduak 4, domeka
Ordua: Eguerdia
Lekua: Gaztelupe
Antolatzailea: Gaztelupe Taberna

Zer

duzu ulertu nahi?

Modu askotan esan daiteke EZ, baina modu bakarrean ulertu.

SOILIK BAI DA BAIETZ.

azaroak **25** Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111 24 h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU

Euskadi, aspasa, hau omen
ELKARREKIN
TUSKO JAURRIARITZA
GOBERNUA YASCO
ERAKUNTZA ERATUAK
GIZAKIEN ARTEAN
GIZAKIEN ARTEAN

araba álava
foru alundia diputadon foral

Bizkaia
foru alundia diputadon foral

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

EUDEL
Euzko Unibertsitatea

Eskatu ticketa
hazten jarraitzeko. BAI.

Eskatu TicketBAI, etorkizuneko erronkei aurrea hartuko dien Gipuzkoa bat eraikitzeko.
gipuzkoa.eus/ticketbai

TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputadon Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Berriro ere Ohorezko Mailan

Profesionalen azpitik dagoen mailarik gorenean lehiatuko da Soraluzeko Pilota Elkartea datorren denboraldian

Soraluzeko Pilota Elkartek atzera ere Ohorezko Mailara igotzea lortu du, Aitor Mendizabal eta Manex Balerdi pilotarien eskutik. Bi pilotariak eskuz binakako Gipuzkoako txapelketako finalera sailkatzeari esker lortu dute maila igoera. Pilotan, profesionalen azpitik dagoen mailarik altuena da Ohorezko Maila eta, Aitor Atxotegik gogora ekarri duen moduan, Gipuzkoan zortzi taldek bakarrik dute maila horretan



Balerdi eta Mendizabal.

plaza, horregatik oso pozik daude lortu dutenarekin.

Bestelako txapelketak

Bestalde, Soraluzeko Pilota Elkarteko alebinetan, errendimendu mailan, banakako txapelketaren bigarren fasean sartu dira. Datorren astean hasiko dira kanporaketak jokatzen. Eskolartekoan, bi jardunaldi jokatu dituzte eta Nagusien Lehen Mailan, berriz, Manex Balerdi Gipuzkoako banakako txapelketan parte hartzen ari da. Aurreko zapatuan hasi zen txapelketa eta 22-0 irabazi zuen lehen partida.

Azkenik, DV txapelketa azken txanpan sartuta dago; abenduaren 3an Eibarren eta abenduaren 8an Tolosan finalerdiak jokatuko dituzte. Finala, berriz, abenduaren 17an jokatuko da Zarautzen.

Sora Gazte Rugby Kluba sortu dute

Errugbian entrenatzen ez ezik, kirol horretan lehiatzen hasi ahal izateko pausoak ematen ari da Sora Gazte Rugby Kluba

Sora Rugby Taldeak beste pauso bat eman, eta, Sora Gazteak Rugby Kluba sortu du. Klubeko kide Enekoitz Igartuak esplikatzen duenez, "errugbiak dituen balore eta atal guztiak sakontzen segiko dugu, baina zergatik ez lehiatzen hasi? Buru-belarri gabiltza gauzak prestatzen horretarako".

Datorren urtean

Hori dela-eta, klub moduan eratu dira, horrek, besteak



Errugbi taldeko jokalariek batzuk.

beste, lehiatzen hasteko aukera zabaltzen baitie. Dena den, oraingoz, ez dute aldaketarik egingo herriko taldean. "Oraingoz entrenatzen segituko dugu, denboraldi honetan behintzat bai. Gero, maiatza aldera rugby taldeko gurasoei eta jokalariekin batzarra egingo dugu. Gurasoek zein umeei duten nahien eta konpromisoaren arabera, bestelako errugbi talderen batenkin batera lehiatzen hasiko dira Sora Gazteak Rugby Klubekoak. Izan ere, umeei erakusten dituzten erabateko inplikazioak ez digu beste aukerarik ematen. Eurak jo eta su lanean dabilta entrenamendu guztietan, beraz, zer gutxiago. Dena ondo badoa, datorren urtean zelaian ikusiko gara!".



Hainbat musikariak Gaztetxean, Soraluzeko Musikarien Elkartearen bueltako batzar baten.

Musikarien elkarteak sortzen

Herriko 40 bat musikari eta musikazale Soraluzeko Musikarien Elkartea (SOME) eratzeke pausoak ematen hasi dira. Besteak beste, musikariak saretu, kultura musikala ezagutarazi eta lokalak nahi dituzte.

Musikari eta musikazale talde esanguratsu bat elkartu eta SOME, Soraluzeko Musikarien Elkartea eratzeke pausoak ematen ari da. 40 bat lagun daude mugimendu horren atzean eta lau helburu dituzte.

Batetik, "argi" ikusten dute azken urteotan Soraluzen gainbehera musikala dagoela eta horri buelta eman nahi diote. "Lehen musika talde mordoa zegoen, bestelako ekimenak ere bai: Errekazulo... Orain ez. Herrian musika dekadentzia dago. Herriko mugimendu musikala berpiztu nahi dugu".

Lokal duinak

Bestetik, entseatzeko eta musika sortzeko lokalak nahi dituzte. "Konfinamendua baino lehen,

musika lokalak itxi egin ziren. Eta itxi aurretik ere, askok ez zituzten lokal haiek erabiltzen, ez ziren zaindu ezta mantenu eta hobetu ere, pentsa, lizuna ere egoten zen, beldurra ematen zuten.... Lokal duinak nahiko genituzke herrian, jendeak musika sortzeko. Bateria bat, gitarra elektriko bat... ezin dituzu etxean jo. Auzokideekin elkarbizitza ere zaindu nahi dugu. Beraz, lokalak ganoraz intsonorizatuta egon beharko lirake, aseguruarekin, musika materialak diru asko balio baitu, eta lokalak erabat irisgarriak beharko lirake. Bestalde, lokaletan parte hartzen dugunok zibismoa zaindu beharko dugu, konpromisoa hartu, urteetan gauzak zaindu eta mantendu,

bai guretzat eta baita atzetik datozenek ere ereduia izan dezaten lokalak mantentzeko. Inguruan adibide asko daude: Eibarko Legarreko lokalak; Elgoibarren Udalak kudeatzen dituen lokalak, Bergaran Goiko Estazioko lokalak... Ez dago ezer asmatzen ibili beharrik".

Musikariak saretu

Halaber, SOMEren bultzatzaileek azpimarratu dute, gaur egun, herriko gazteak ez dabiltzala musikan, "akaso ez dutelako lokalik izan, eta, musika non sortu edo non entseatu ez badute, zaila da musikan ibiltzea. Ez dute musika egiteko espazio publikorik ezagutu. Besteak beste, musika lokaletan sareten dira musikariak". Hain justu, hori da SOMEren bitartez lortu nahi duten hirugarren helburua: Soraluzeko musikariak elkar ezagutu eta saretea. "SOME zabalik dago guztiendako, gazteak, nagusiak, helduak... eta musika mota guztiarendako".

Azkenik, laugarren helburu modura, Soraluzeko kultura musikala ezagutzera eman nahi dute. "Herriari eman".

Musika jaialdia

Azken helburu horrekin lotuta, zapatuan, egun osoko musika jaialdia antolatu dute Gaztetxean. 12:00etan hasiko da, musika lasaiarekin, 15:00ak arte. Gero, bazkarirako etena egin eta 18:00etan rock, rap kontzertuak izango dira... bukatzeko DJak edo dance musika izango da. Musika mota denetarikoa izango da eta bertsioak zein kanta originalak. Taldeak ere denetik, talde badirenak, propio sortutakoak... Sarrera doan izango da eta barra zabalik izango da eta SOMEn izena emateko aukera izango da".

"Plazentziak zatar fama du, baina ez da horrela, are gutxiago dituen mendiekin"

JESUS ECHEVARRIA SORALUZETIK MADRILERA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: JESUS ECHEVARRIA ETA U.M.

Jesus Echevarria (Soraluze, 1955) Soraluzetik kanpo bizi da 1969tik. Zaragozan egin zituen ikasketak (sistemetan ingeniaria) eta gero Madrilera joan zen bizitzera, Majadahondara. Ondoren, handik-hona ibili zen lan kontuengatik: Txile, Peru, Argentina, Bartzelona, Bilbo... Baina etxea Majadahondan zuenez, Madrilera bueltatu eta hantxe du bizitokia, 2006tik baita Soraluze izeneko jatetxea ere, Las Rozasen. Plaza Zaharrean egin diogu elkarriketa, jaioterrira egindako bisita bat aprobetxatuz.

14 urte zenituenetik Soraluzetik kanpo bizi arren, jatetxeari Soraluze izena ipini zenion...

Beti etorri izan naiz hona, urtean behin gutxienez. Lagunak, familia, herria eta

inguruak bisitatzen. Azken urteotan, adibidez, Aste Santuro gatoz, zeren hemen udan ez dago ezer. Xabier Iñurrietaren laguna naiz eta elkarrekin ibiltzen gara hemendik hara. Nik gustuko dut Soraluzera etortzea, baina ez denbora luzerako, aspertu egiten naiz. Ez nintzateke Soraluzera bizitzera etorriko, baina bisitatzen beti.

Zelako jatetxea da Soraluze?

Etxeko errezetak egiten dira, sukaldaritza mediterraneoan eta euskal sukaldaritzan oinarrituta. Bakailaoa pil-pilean, Tolosako babarrunak, porru-salda... horiek denak nik egiten ditut. Neu naiz sukaldaria, ahalegintzen naiz nire gustuko gauzak ipintzen eta horiek dira lapikoan egindakoak. Orain, Rosa boliviarrak ere ari da sukaldean, nik erakutsi diot eta oso-oso

langile fina da. Nire errezetak egiten ditut, batzuetan aldaketak eginez, noski, baina begira, pil-pil saltsa dagoeneko berak egiten du. Nik nire amak etxean egiten zizkigun errezetak egiten ditut. Gisatu asko egiten dugu, karrillerak, zezen-buztana, arraina saltsan... fritangak, berriz, gutxi egiten ditut, ez zaizkit gustatzen. Egunero kozinatzen da menua osatzeko. Gaez, berriz, errazioak ematen ditugu.

Ama Soraluzekoa zenuen, ala?

Ez. Amak (Araceli) eta aitak (Antonio) Soraluzen ezagutu zuten elkar eta hemen ezkondu ziren. Baina ama Valladolidetik zetorren eta aita Arabatik. Porfiren ahizpa nagusia zen nire ama.

Soraluzeko argazkia ere baduzu jatetxean.

Bai; esaten dut nire etxetik ateratakoa dela, baina izebaren etxetik ateratakoa da. Ni Errekalden jaio nintzen, dagoeneko etxe hura ez da existitzen. Jatetxean dudak argazkia ikusita, berriz, jendeak dio oso-oso polita dela. Eta ni harro. Plazentziak zatar fama du, baina ez da horrela, are gutxiago herria inguratzen duten mendiak kontuan hartuta. Nik urtero izaten dut Kontrargiren egutegia eta han ere irudi benetan politik ikusten dira.

Soraluzetarrak joaten zaizkizu Soraluze jatetxera?

Mordoxka bat etortzen ziren, orain ez horrenbeste, ez dakit zergatik. Lehen baziren batzuk beti zetozenak baba-jana egitera, baina pandemiak geroztik asko jaitsi da hori. Dena den, Madril bizi diren soraluzetarrek ezagutzen zuten jatetxea eta Soraluzetik



Jesus Echevarria Kalebarrenen.

Madrilera joan izan diren batzuk ere etorri dira jatetxera. Ricardo Quintana, adibidez, Puerta de Hierro eta Gregorio Marañón ospitaleen kudeatzailea izan da eta hura orain dela gutxi etorri zen jatetxera familia guztiarekin; pandemian, berriz, etxera eramaten nien bazkaria. Bera soraluzetarra da eta emaztea Elgoibarkoa.

Osterantzean, zelako bezeroak dira madrildarrak?

Hona denetik dator, familia asko eta etxeko jatorduak gustuko dituztenak etortzen

**"NIRE AMAK EGITEN
ZIZKIGUN ERREZETAK
EGITEN DITUT NIK
JATETXEAN,
LAPIKOKOAK"**


dira. Madrilen ez daude leku asko etxeko janaria eskaintzen dutenak eta daudenak nahiko garestiak dira. Soraluze jatetxean, eguneko menua 13,50 eurokoa da eta asteburuetakoa 17,50 eurokoa. **Galdetzen dizue jatetxearen izenaz?**

Bai, esaten diet nire herria dela eta Gipuzkoan dagoela, zeren hemendik kanpo asko nahasten dituzte Gipuzkoa, Nafarroa... **Soraluze zure jaioterria izan arren, Madrilen gustura zaude.**


Madrilen ditut lau semeetako bi; beste bat Londresen bizi da eta beste alaba bat Zaragozan. Bestalde, Madrilen denetik dago eta oso gustuko dut. Dena den, hemengo mendi-gainetik edo bestelako mendietan ibilaldiak gustura egingo nituzke. Leku batzuetan gauza batzuk daude eta bestean beste batzuk.



Jesus eta Rosa sukaldariak.



Jatetxeko plateretako bat.



Soraluze jatetxea.

Andoni Rico modeloa

BESTEAK BESTE, HIRUTAN MADRILEN DESFILATU DU ETA BIRRITAN BARTZELONAN

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

IRUDIAK: ANDONI RICO ORDAX

Oso gazte hasi zen Andoni Rico Ordax (Soraluze, 28 urte) modelo lanetan, gurasoek bultzatuta, Eibarko El Corte Ingleseko desfile batean. Han irabazi egin zuen eta orduz geroztik, modelo lanak egiten segitu du. Gaur egun, Gasteizeko Mclass Moda agentzian dihardu.

Desfile gustukoenak

Orain arte, ibilbide oparoa egin du Ricok, inguruko herrietako arropa denden jantziekin, Donostian, Zarautzen, Bilbon, Gasteizen... Baina pasarela entzutetsuetan ere izan da eta haietan izandako esperientziak ditu gogokoen: "2014an, Espainiako Guapo lehiaketan, Fuengirolan, Euskadiko Guapo modura izan nintzen; urte berean, Bilboko BECen izan nintzen Roberto Etxeberria Eibarko diseinatzaileak eramanda eta 2015ean, birritan, Mercedes Benz Fashion Week Madrilen izan nintzen, han ere Roberto Etxeberriarekin. 2015ean eta 2016an, berriz, Bartzelonako Elite Model Agentziaren desfileetako finalera heldu nintzen eta 2016an, Madrilean desfilatu nuen Donostiako Academia de Peluqueria y Estética BETArentzat. Bestalde, Balenciaga Museoa ere desfilatu izan dut eta aurtan, Gasteiz On pasarelan".

Guapo Euskadi, Fotogenia...

Desfileak egiteaz aparte, sariak edo izendapenak ere eskuratu ditu Ricok; batzuk aipatzearren, Guapo Euskadi izendatu zuten eta gainera, Guapo España lehiaketan, sei finalisten artean egon eta Guapo Fotogenia España saria lortu zuen. Saririk berriena, berriz, aurtengo udazkenean eskuratu du justu, Gasteizko Guapo izendatu baitute Gasteiz ON pasarelan.

Etxeberria, Madril eta Bartzelona

Dena den, sariei baino, modelo lanean eskuratutako esperientziei ematen die garrantzia Ricok: "Roberto Etxeberriak Madriler a ramatea izugarrizko saria izan zen, modelo lanean edukitako esperientziarik garrantzitsuena. Nik ikusten nuen moduan, modelo nintzeneko lehen urtean Madrilen desfilatzea ikaragarria zen, eta hala ere, lortu nuen, hiru alditan, Roberto Etxeberriari esker. Gainera, etxekoak han izan ziren ni babesten, horregatik niretzat oso bereziak izan ziren Madrilgo desfileak. Bestalde, Bartzelonako Elite Model agentzian bi urte

**"ROBERTO
ETXEERRIAK
MADRILERA ERAMATEA
IZUGARRIZKO SARIA
IZAN ZEN"**

jarraian finalera heltzea ere saria izan zen".

Ez da jarraitzaile


Modelo lanetan eskarmentu luzea izan arren, Andoni Ricok aitortu du ez dela "mundu horren jarraitzaile". "Modelo bat aukeratu beharko banu Jon Kortajarena izango litzateke, baina modelo sartu aurretik ez nuen mundu hau ezagutzen eta, orain ere, nire mailan dauden modeloak jarraitzen ditut bakarrik". Arropari dagokionez ere, berdin. "Erosterakoan, gustuko dudana erosten dut, ez marka bat bereziki", kirol arropan ez ezik, hor Ternua begiratzan duela kontatu du. Azkenik, diseinatzailearik gustukoena aukeratzekotan, argi du Roberto Etxeberria eibartarra dela hori, berari emandako aukerarengatik.

"Pozik eta oso gustura"

Azken bost urteotan, modelo zereginekin, Eibarko Gaurisa kontzesionarioan duen lana uztartzen du Andoni Ricok, bere esanetan, modelo lanetik bakarrik bizitzea "oso-oso zaila" baita, are zailagoa mutilentzat, aukera gutxiago dutelako. Dena den, mugekin bada ere, modelo lanei eusten jarraitzen die eta "pozik eta oso gustura" dago lortutakoarekin: "Gauza asko ezagutu ditut, jende asko, eta, ez dut besterik espero".



Andoni Rico, Roberto Etxeberria diseinatzaile eibartarraren desfilean, Madrilén . ANDONI RICO



Andoni Ricoren lehen planoan.



Andoni Rico txaketarekin.



Andoni Rico eserita.

ZORION AGURRAK



Markel Lizarralde
Azaroaren 10ean 11 urte. Zorionak txapeldun etxekuen partez!!!



Uxue Ruiz Romo eta Izar Uzin Zubizarreta
Azaroaren 14an eta azaroaren 24an, 26 eta 8 urte. Zorionak eta muxu haundi bana bioi, familia osoaren partez.



Julen eta Sara Muñoz
Abenduaren 6an eta 3an, 3 eta 7 urte. Zorionak bixori eta jarraitxu orain arte bezela irribarre Eder horrekin, etxia hankaz gora jartzen.



Iñigo Iñurrieta
Azaroaren 27an 65 urte. Urte on on askotarako muxu haundi bat, asko maitxe zaitxugun etxekuen partez.



Itziar Gantxegi
Azaroaren 12an 67 urte. Urte askotarako, jarraitxu irribarre eder hori gurekin konpartitzen asko maitxe zaitxugun etxekuen partez, bereziki Sofian partez.



Darina Fikelson
Azaroaren 24an 30 urte. Jarraitxu orain arte bezelako neska alai eta ona izaten eta nola ez etxia alaitzen. Asko maitxe zaitxugu. Etxeko danen partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

Internet
Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@pilpilean.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

OHARRAK

Liburu aurkezpena
'Placencia de Soraluze' Javier Elorza
Eguna: Azaroak 29, martitzena
Ordua: 19:00
Lekua: Antzokia

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak
Buenaventura Rodriguez de la Cruz
Laurentino Prieto Barrocal
Juan Manuel Aguirrezabal Bascaran
Dolores Churruca Azpiazu
Emilio Leonardo Hernandez
Iñaki Aranzeta Argarate
Jose Ramon Gonzalez Blanco

ESKELAK

ESKELA

Jose Ramon Gonzalez Blanco

2022ko azaroaren 22an hil zen, 56 urte zituela

Beti biziko zara gure oroimenean, batera bizitako momentu guztiengatik.

MERCEDeko zure lagunak

ESKELAK

VIII. URTEURRENA

Jose Luis Ariznabarreta Aizpiri



2014ko abenduaren 18an hil zen.

Denborak aurrera egin arren, zure oroitzapenak indartu egiten gaitu.

Etxekoak

ESKELA

Jose Ramon Gonzalez Blanco



2022ko azaroaren 22an hil zen, 56 urte zituela

Vivirás siempre en nuestro recuerdo de todos
los buenos momentos vividos juntos.

Tabernako kuadrilla

ESKELAK JARTZEKO: 699 86 87 29 edo eskelak@pilpilean.eus

Hil diren herritarren eskelak, oroigarriak eta urteurrenak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak (BEZ barne):

- Arrunta: 75 €/ Bazkideek 60 €
- Handia: 120 €/ Bazkideek 96 €

Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.

HNOS. BENITO ANZIAK
MUEBLES-ALTZARIAS

**Sukaldeak, logelak, egongelak,
neurritza egindako altzariak...**

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47

Criado
Fruitategia Undaitegia

- Enkarguak Whatsapppe
- Eltxerako zerbitzua
- Berrikok & delicatessen

Astelehenetik ostiralek:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatak: 09:00-13:00

629 918 536

Soraluze Motor

Mug. 676 556 817 (Asier) Mendiola ind. 15
Tel. 943 75 21 38 Soraluze



EROSKI

zurekin

Zuzen-zuzenean
gure baserrietako
baratzetatik

Ireki frankizia bat EROSKIrekin

Esperientziadun frankizia
eta ezberdina

gure frankiziatuen
+%97ak
gomentatzen du gure
frankizia-eredua

+600
frankizia
supermerkatu
gehiago

+40
urteko esperientzia
frankizietan

+6 M
milioi bezero
fidelizatu EROSKI
club bazkide
txartelarekin

4 aldiz aukeratu gaituzte
Espainiako frankiziarik
onena bezala



Informazio gehiago
<https://franquicias.eroski.es/>
edo.franquicias@eroski.es